



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Sukarrieta, 2023ko apirilaren 19a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidezko lizitazio prozedura bat ireki duela **arraste-ontzi bat alokatzeko, Frantziako kostaldeko uretan kanpaina ozeanografiko bat egiteko (ICES 8abd eremua).**

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Kanpainak zazpi (7) eguneko iraupena izango du (marea bat) eta 2023ko ekaina eta uztaila bitartean egingo da.

Marearen hasiera-data zehatza AZTIko ikertzaileen eskuragarritasunaren arabera zehaztuko da, eta meteorologia hartuko du kontuan, kanpaina egiteko aldekoa izan beharko baitu. Enpresa armadorearekin adostuko da, denbora nahikoarekin, bi aldeek plangintza ona izan dezaten.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehieneko eskaintza ekonomikoa **hamabi mila euro da (12.000,00€)**, zergak barne hartu gabe.

Fakturazioa zerbitzua amaitzean egingo da, eta jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da faktura.



2 0 1 1



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%50
Doitasun teknikoa	%35
Tripulazioaren esperientzia arraste-kanpaina ozeanografikoetan	%10
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Irati Velezi aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak ivelez@azti.es helbide elektronikoa eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2023ko maiatzaren 4ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute **informazio tekniko** gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: Elsa Cuende de Francisco

Tel. 34 671 700 519

Mail: ecuende@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantza eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)
- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Dokumentaziorako, hautatutako erakundeak, www.azti.es webgunean argitaratutako Kontratazioari buruzko Barne-Araudia bete beharko du.
- Baldintza teknikoek eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Segurtasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzeke eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

Hautatutako erakundeak deskribatutako baldintza teknikoei erantzun beharko die:

Egin beharrekoak:

- Kanpainaren eskura arraste-ontzi bat jartzea eta kanpainaren arduradunaren jarraibideei jarraitzea.
- Arrantza-sareak kanpainaren plangintzaren arabera operatzea: kasuan kasuko ontziak erabiltzen duen ohiko arrantza-sarearekin jardungo da, eta 2 saku desberdin txandakatuko dira, bata 70 mm-ko neurri nominalarekin, erregulazioak ezartzen duen bezala, eta bestea saku itsu bati egokituko zaio. Bi sakuak erakunde esleipendunak hornituko ditu. Saku horiekin jarduteko, beharrezko baimenak eskatuko zaizkie agintari eskudunei.

Hautatutako erakundeak honako hauek egiaztatu behar ditu:

- Frantziako kostaldean lan egiten duten arraste-ontziak izatea (ICES 8abd eremua).
- Kanpainan erabiltzen den itsasontziak lan-estalki zabala izatea plangintzan deskribatutako sakuak erabiltzeko, bai eta arrantza-parke zabala ere, AZTIko teknikariek beren eginkizunak bete ahal izan ditzaten.
- Antzeko ezaugarriak dituzten bi sare izatea, deskribapenean ezarritako saku bakoitzarekin txandaka jarduteko.
- Kanpaina hau aurreikusitako daten artean egiteko prest egotea (2023ko ekain-uztaila).
- Aurreikusitako epean bi zientzialarientzako bizigarritasuna izatea.



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Era berean, azpikontratazio-zerbitzuak honako hauek egiaztatzea baloratuko da:

- Kanpaina prestatzeko aurrez aurreko bilerak egiteko aukera AZTIren eta erakunde esleipendunaren artean.
- Tripulazioaren esperientzia arraste-kanpaina ozeanografikoetan. Ontziko zientzialariek kanpaina zientifikoetan aldeztatik egindako kanpainetan parte hartu izana.